

KONTROL MOZIOA

BIZILAGUNEN ESKAEREI ERANTZUTEKO, UDALBATZARRETAN ONARTUTAKO KONTROL MOZIOAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2017ko azaroaren 13an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urrian, Udal Gobernuak “Hitzak eta Ekintzak” izeneko ekintza burutu du, bere udal programan eta agerraldietan esaten duena betetzen duela adierazteko. Ariketa horretan, Udal Gobernuaren ustez era egokian kudeatu du auzo elkarteekiko harremana, hiritarren atentzia, Udal Gobernuaren jardunaren gardentasuna eta abar.

Oposizioan gauden udal taldeok eta hainbat eragile zein bizilagunek, ordea, ez dugu Udal Gobernuak egindako ariketa hori hain positiboki baloratzen. Horren adibide dira, esate baterako, Karlos I.a etorbideko bizilagunak edo Maldatxo kalekoak; azkenaldian askotan landu izan ditugun gaiak, Udal Gobernuak ez baitu agindutakoa bete.

Hain zuzen ere, aste honetan Maldatxoko 100 bizilagun baino gehiagok erregistro bidez aurkeztutako idatzian argi adierazten dute Udal Gobernuak ez duela bete urtarrileko eta uztaileko udalbatzarretan bozkatutakoa. Izan ere, Udal Gobernuko ordezkariak udalbatzarretan egindako adierazpenetan argi adierazi zuten horma konponduko zutela, baina, orain arte ez da horrelakorik egin.

Hilabete honetako batzordeetan delegatuak adierazi digu horma ez dagoela era egokian, baina oraingoz ez dela esku-hartzerik egingo beste lehentasun batzuk daudelako hirian. Talde honek ezin du ulertu nolatan bozkatzen den bizilagunen aurrean hormaren egoera hobetuko dela (uztaileko udalbatzarrean) eta gero ez den agindutakoa betetzen.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udaltzaren hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari urtarrileko eta uztaileko udalbatzarretan Maldatxoko zonaldearen inguruko kontrol mozioetan erabakitakoa bete dezala.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azaroan erregistro bidez bizilagunek aurkeztutako idatziari erantzuna eman diezaiola.

Donostian, 2017ko azaroaren 17an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzi